

Gipuzkoa

Eskoriatza

Erdigunea Casco urbano

### ZUBIATEKO BUZTINGINTZA-LABEA HORNO ALFARERO DE ZUBIATE



Hirigunetik iparraldera dago, eta urbanizazio berri bat txertatu diote inguruan oraindik orain. XIX. mendearen amaieran eraiki zuten, eta XX. mendearen hasiera arte egon zen martxan. Hauxe da Gipuzkoan zutik dagoen buztzingintza-labe bakarra, nahiz eta Aretxabaletan, Azkoitian, Oñatin, Tolosan edota Zumarragan tankera horretako lantegiak egon ziren. Harlangaitzezko eraikin soila da, lau angeluko oinplanoa duena; 20 m<sup>2</sup> inguru ditu, eta 5,33 metro garai da. Eraikin nagusiaren inguruan beste zenbait atal daude atxikita, lehorketako guneari eta biltegiari dagozkionak. Egiturak forru bikoitza du. Kanpoko murrua ilaratu gabeko harlangaitzezkoa da, kareorez lotua; metro bete inguru du zabalean. Barruko murrua adreilu erregogorrez egina da. Labea arabiar motakoa da, aireztatze-sistema goranzkoa baitu, goialdeko irekidura baten bidez. Zama-lanetarako bi albate edo ate gainjarri erabiltzen dira hegoaldeko horman, eta bertatik kontrolatzen da erreketaren prozesua. Ondare gisa balio handia duenez, 2000. urtean monumentu izendatu zuten. Ikerketa arkeologikoa eta berritze-lanak egin ostean, museo bihurtu dute gaur egun.

Localizado al norte del casco urbano, ha sido recientemente integrado en una nueva urbanización. Se construyó a mediados del siglo XIX y se mantuvo activo hasta principios del pasado siglo XX. Este horno es el único ejemplar de horno alfarero que se ha conservado en Gipuzkoa, actividad, la alfarería, que estuvo también presente en municipios como Aretxabaleta, Azkoitia, Oñati, Tolosa, Zegama... Es una sencilla construcción de mampostería, de planta aproximadamente cuadrangular, de algo más de 20 m<sup>2</sup> y una altura de 5'33 m, en torno a la cual se pueden observar diversos anexos correspondientes a las zonas de secado y almacenaje. La estructura está ejecutada mediante un doble forro. El muro exterior es de mampostería no concertada, ligada con una argamasa caliza, de una anchura aproximada de 1 m. El muro interior es de ladrillo refractario. El horno es de los denominados hornos árabes, caracterizados por disponer de un sistema de ventilación ascendente en la parte superior abierta. Para su carga y descarga cuenta en uno de sus muros laterales, el sur, de dos boqueras o puertas superpuestas, a través de las cuales se efectuaba el control del proceso de cocción. Dado su indudable valor patrimonial, en el año 2000 fue declarado Monumento. Tras llevar a cabo su estudio arqueológico y rehabilitación, en la actualidad se ha iniciado su musealización.